

Datorren ikasturtean 25 ikasle joango dira Huhezitik Erasmus egonaldiak egitera

2009/05/06

Huhezik dena prest du datorren ikasturteko Erasmus egonaldietarako. Guztira 25 ikaslek eman dute izena Erasmus programan: **14 Irakasletza ikasketak egiten** ari dira, eta **11, Ikus-entzunezko Komunikazioa**. Generoari dagokionez, berriz, **14 mutil eta 11 neska** joango dira atzerrira, denak hirugarren mailako ikasleak.

Espezialitateak

14 ikasle Irakasle ikasketak egiten ari dira, espezialitate hauetan:

- Hezkuntza Fisikoa: 7
- Atzerriko Hezkuntza: 5
- Hezkuntza Berezia: 2

11 ikasle, ostera, Ikus-entzunezko Komunikazioa ari dira ikasten.

Herrialdeak

Zortzi herrialdetan banatuko dira 25 ikasle hauek:

- Suedia: 6
- Norvegia: 6
- Herbereheak: 4
- Danimarka: 2
- Finlandia: 2
- Mexiko: 2
- Estonia: 2
- Belgika: 1



Argazkia: Ane Urkiola